

noaua

**Ostiral honetan,
Hitzartu ekimenaren
aurkezpena Sutegin**

Eguberriak, iruditan

**Opari ugari
Hurbilagoren
Gabonetako zozketan**



**Ekhi Ajuria Illarramendi aeronautika-ingenieria,
Altuning Pro Gipuzkoa lehiaketan saritua**



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

URDAIRA

Sagardotegia

Urtarrilaren 13an, LARUNBATA
IREKITZEN DUGU!!!
astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



jostailu denda
xirinbolo

Etxebeste Kalea, 15 943 37 75 96 Usurbil

Albiste iruditan

Ugartondoko egungo eraikinak botatzeko baimen eskaera

Gerturaten ari da Ugartondoko egungo eraikinak eraisteko eguna. Jaureguizar S.L. enpresak jada lanok bideratzeko baimena eskatu duela berri eman du Uraren Euskal Agentziak. Gogoan izan, bertan hainbat etxebizitza eraikiko direla. Tartean, Udalak urtarrilaren 25ean (18:00etan Oiardo Kiroldegian) zozketatuko dituen babes ofizialeko 46 etxebizitza eta 46 etxebizitza tasatu.

Uraren Euskal Agentziak abenduaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko iragarkian berri eman zenez, "Jaureguizar S.L.-k baimena eskatu du hau egiteko: Usurbilgo Udalerrian, Puntapax errekaostaren ezker ertzeko uren polizi gunean, Ugartondo poligonoko eraikin industrialak eraisteko lanak. Lanak, Usurbilgo udalerriko Ugarte auzoan gero hiritartzea garatzeko, Puntapax errekaostaren ezker ertzeko uren



Urtarrilaren 25ean zozketatuko dira babes ofizialeko 46 etxebizitza eta 46 etxebizitza tasatu.

polizi gunean kokatutako eraikin industrialak eta ertz bereko uren zortasun gunea inbadituz aurkitzen den eraikin bat eraistean datza". Abenduaren 29az geroztik, "obra horiek kalteak eragiten diz-

kietela irizten dutenek" erreklamazioak aurkezteko 23 eguneko epea dute eta gai honi lotutako ere informazioa eskuragarri dago Uraren Euskal Agentziaren egoitzan (Intxaurren, 70-1., 20015 Donostia).

Laburrean

Eguberriak iruditan

Igaro berri ditugun asteotan ekitaldi morderoa antolatu da herrian. Hitzorduotako zenbait pasarte iruditan bildu ditugu. Helbide honetan ikus ditzakezue: noaua.eus/argazkitegia atarian. NOAUA!ren San Tomas Azokako fotokoleko irudiak ere bide beretik bistaratu ditzakezue.

Asteroko martxan

Eguberrietako etenaldiaren ondoren, aurrerantzean astero jasoko duzue aldizkari hau. Urtarrilaren 19an argitaratuko dugun NOAUA!rako zorion-agur edo oharrik baldin baduzue hilaren 15a baino lehen helarazi emailaz erredakzioa@noaua.eus edo telefonoz deitu 943 360 321.

Aurrekontuak, onartuta

Usurbilgo Udaleko udalbatzak hasieraz onartu zituen 2018rako udal aurrekontuak abenduaren 19rako deitu zuten ezohiko osoko bilkuran. Kontra bozkatu zuten EAJ eta PSE-eko zinegotziek. Urtarrilaren 4az geroztik, erreklamazioak aurkezteko 15 laneguneko epea dago.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordintzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Disenu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

María Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Arana-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia:

Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

Zuhurtzia eza

Beste hizpiderik ez da egunotan. Denboralearen ondorioz, jende asko harrapatuta geratu zen asteburuan. Elurra goian behean, ez aurrera ez atzera, errepidean atrapatu-rik. Egur dezente banatzen ari dira egunotan: aurreikuspen falta, bitartekoen eskasia, informazio eza... Administrazioak, nagusiak zein txikiak, begipuntuan daude.

15 orduz errepidean geldi egon behar izatea ez da gauza samurra izango. Gauez, negu betean, elurra inguraturik.

Irratietan lekukotza ugari batu zituzten astelehenean. Bere kasua azaldu zuen ba-

tek zera zioen: AP6 autopistan sartu zirenean, inon ez zutela okerreko seinalerik ikusi. Sare sozialetan begira aritu zirela eta ez zutela arrisku zantzurik sumatu. Autopista izanda, errepidea garbi egongo zela pentsatu zuten eta bidean aurrera egitea erabaki zuten. Elurra etengabe ari zuela onartu zuen.

Hobeto komunikatu, seinale handiagoak ipini, aplikazio hobeak garatu... Askok dira hortik zehar zabaldu diren balizko konponbideak.

Denboralearen ondorioz, gailu berriak sortzeko inbertsioak egingo dira, eskuko telefonoetarako aplikazio berriak garatuko dira. Hala ere, bada teknologiak ordezkatu

ezingo duen gauza bat: bolantean jartzen garenon giza portaera.

Informazioa ondo eta taxuz zabaltzea ezinbestekoa da. Teknologiarik itsatsita bizi garen garai hauetan, gailu hobeak garatzea beti izango da ona. Baina hortxe jarraituko du giza-faktoreak: kasketaldia, zuhurtzigabekeria, arinkeria... Balizko adibide batzuk hemen:

- "Ez gaude etxetik hain urruti. Goazen". Autoa ondo egokituta al dugu? Eta guk, ba al dugu elurretan gidatzeko nahikoa trebeziarik?

- "Egunero bada alertaren bat. Ez da hainbesterako izango". Ezinbestekoa al zen egun horretan, egoera horretan au-

toa hartzea? Kasu guztietan?

"Goazen autopistatik. Hori seguru egongo dela zabalik". Eta autopistatik atera eta etxerako bidea garbi egongo al da?

Ez dut Administrazioaren lana zuritu nahi. Ez dira fin ibili eta badute hobetzeko-rik. Baina gidariok ere badugu ardurarik.

Azken orduko informazioa muturraren aurrean ipiniko digute, app onena garatuko dute gure telefono zein tablet-etan instalatu ditzagun... Baina auto bakoitzeko elurra kentzeko makina bat ipinita ere, ez da gidari batzuen zuhurtzia eza zuzenduko duen gailu teknologikorik egongo.

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

2018rako Ordenantza Fiskalak, behin betiko onartuak

Urte hasieratik indarrean dira jada, 2018rako zerga, tasa, prezio publiko, kontribuzio berezi eta zerga kudeaketaren ordenantza fiskalak. Epearen baitan, inork erreklamaziorik aurkeztu ez zuenez, behin betiko onartu zituen Usurbilgo Udalak urte amaieran.

Akats zuzenketak

Urriaren 31n hasieraz onartu zituen udalbatzak 2018rako zerga ordenantzok. Alegazio epea ireki zuten gero. Ordenantzak akats txiki batzuk zutela ohartu eta horiek zuzen-

teza onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz (EHBildu eta PSE alde, EAJ abstentzioa) abenduaren 19an egin zuten osoko bilkuran.

Egutegi fiskala

Ordenantza fiskalekin batera, 2018ko egutegi fiskala ere onartua du Usurbilgo Udalak. Hemen, noiz zer ordaindu beharko den abiatu berri dugun urte berrian:

- Urtarrilak 2-31: asteroko merkatuaren erabilpen-tasa (2017ko 4. hiruhilekoa).
- Otsailak 1-martxoak 15: ura, estolderia eta hondakinak

(2017ko 4. hiruhilekoa).

■ Martxoak 1-apirilak 16: trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga.

■ Apirilak 3-30: asteroko merkatuaren erabilpen tasa (2018ko 1. hiruhilekoa).

■ Maiatzak 2-ekainak 15: ura, estolderia eta hondakinak (2018ko 1. hiruhilekoa).

■ Maiatzak 15-uztailak 2: ondasun higiezinaren gaineko zerga.

■ Uztailak 2-abuztuak 1: asteroko merkatuaren erabilpen-tasa (2018ko 2. hiruhilekoa).

■ Abuztuak 1-irailak 17: ura, estolderia eta hondakinak

(2018ko 2. hiruhilekoa).

■ Irailak 3-urriak 1: espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badao).

■ Urriak 1-azaroak 12: ekonomi jarduera gaineko zerga.

■ Urriak 1-31: asteroko merkatuaren erabilpen-tasa (2018ko 3. hiruhilekoa).

■ Azaroak 2-abenduak 17: ura, estolderia eta hondakinak (2018ko 3. hiruhilekoa).

■ Azaroak 2-30: bide publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasa.

■ Azaroak 2-30: emakida administratiboak.

Ostiral honetan, Hitzartu prozesuaren aurkezpena Sutegin

Gipuzkoa mailan hondakinen kudeaketa-rekin dugun gatazka-ren konponbide adosturantz eramango gaituen bide-orria diseinatzeko Hitzartu parte hartze prozesua eratu eta abiatzea erabaki zuten joan den abenduaren 16an, GurasosSek deituta Donostiako Eureka zientzia museoan ospatu zen ekitaldian. Gizarte zibilaren ekimenez jaio den egitasmoaren finantza proiektua eta prozesuaren jarraipena egingo duen Berme Batzordeari erabateko babes eman zioten bertarurikoek.

Herritarrak, eragileak eta erakundeak erdigunean jarri eta guztion elkarlanez garatuko den aurrekaririk gabeko, eta eredu gisa nahiz moduetan berri-tzailea izango den parte hartze prozesua abiatzera doaz honenbestez, urte berri honetan.

Prozesuaren gaineko xehetasunen berri emateko, udalerrri mailako aurkezpen ekitaldia antolatu dute ostiral honetarako, urtarrilaren 12an, 19:00etan Sutegin. “Herritar norbanako eta eragile guztiak bertara gonbidatu nahi ditugu!”, luzatu dute gonbita.



Herri mailako aurkezpen ekitaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

DIRU BILKETA KANPAINA

Gastuoi aurre egiteko ‘crowdfunding’ diru bilketa kanpaina abiatu dute itsulapikoa.eus atarian. Norbanako, eragile nahiz erakundeek lagundu dezakete, diru ekarpenak eginez

“Hitzartukide” izateko deia

“Hitzartu” prozesuaren baitan aurreikusiak dauden ekintza guztiak garatzeak gutxi gorabehera, gehienez jota 80.000 euroko gastua eragingo duela aurreikusten dute proiektu

honen sustatzaileek. Jasotako laguntzaren araberako parte hartze prozesua bideratuko da hurrengo hilabeteotan. “Gure nahia, prozesua ahalik eta kalitate onenaz garatzea litzateke”, desio dute.

Gastuoi aurre egiteko “crowdfunding” diru bilketa kanpaina abiatu dute itsulapikoa.eus atarian. Norbanako, eragile eta nahiz erakundeek lagundu dezakete, diru ekarpenak eginez nahiz parte hartze prozesura Hitzartukide berriak erakarritz.

Informazio gehiago:

hitzartu.eus
hitzartu@hitzartu.eus
Twitter: @Hitzartukide
Facebook: Hitzartukide

Urteberriko Tripontzia, dirutza banatzeaz

Dirutza banatzeaz dira; 60.000 euroko sari nagusia eta 6.000 euroko beste zazpi sari. Gure Esku Dago mugimenduak euskararen gizarte erakundeekin Kontseiluarekin elkarlanean antolatu duen Tripontzia Urteberriko Sariaren Euskal Herri mailako zozketak milaka euro banatuko ditu, datorren astelehenean, urtarrilaren 15ean. Azken asteotan Usubilgo Gure Esku Dago taldekoak zozketarako txartelak saltzen aritu dira. Txartelik baldin baduzu, adi beraz. Milaka euro irabazteko aukera izatearekin batera, “Jostunak; herritarren borondateak jositako istorio bat” dokumentala deskargatzeko aukera duzue.

Ekimen honetatik bildutako laguntza, egitasmoa sustatu duten bi eragileen jarduna finantzatzera bideratuko da. Informazio gehiago: tripontzia.eus



Urtarrilaren 15ean egingo da zozketa.

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabideek sustaturiko tira komikoa.

EH Bildu: “Usurbildarren eskubideak, ongizatea eta bizi-kalitatea bermatu nahi ditugu”

Hasieraz onartu da 2018ko udal aurrekontua. Aurreko aldizkarian, EAJ eta PSEren balorazioak jaso genituen. Honakoan, udal gobernuaren koalizioaren iritzia batu dugu.

NOAUA! Zeintzuk dira 2018ko udal aurrekontu proposamenaren ildo nagusiak?

EH Bildu. 2018ko aurrekontua 11.312.981 eurokoa izango da. Lau zutaberen gainean eraiki dugu datorren urterako aurrekontua. Hona hemen zutabeak eta zenbakiak:

1) Herri nortasuna indartu: 1, 2 milioi euro. Udalaren ustez, euskara, kultura, aniztasuna, parekidetasuna, hezkuntza eta bizikidetzak dira Usurbilgo nortasun-ikur nagusiak, eta aurrekontuon bidez balore horiek indartu nahi ditugu. Hala, ez da txikia asmo horretara bideratuko den dirutza, ia 1.200.000 euro, aurrekontu osoaren %10,33 hain zuzen ere.

2) Herri jasangarria eraiki: 2,6 milioi euro. Nortasun ikur horietan oinarrituz, aurrekontuen zerumugan herri jasangarria lortzea dago. Gure herria, espazio publikoa, irizpide jasangarriak aintzat hartuz antolatu nahi dugu. Izan ere, udal go-



“Aurrekontua auzolana eta elkarlanari ematen diogun garrantziaren isla da”.

EH BILDU

“Sarrerak zuhurtziaz kalkulatu ditugu, eta gastu arruntak ahal den neurrian mugatu ditugu, inbertsioetarako diru gehiago bideratu ahal izateko”

bernu honentzat jasangarria ez da modako etiketa bat, udal jarduna zizelkatzen duen balorea baizik, ardatz nagusia. Lan horretarako 2.600.000 euro bideratuko dira, eta aurrekontu osoaren %23,28 hartuko du. Diru-partida horren barruan daude, hirigintza, ingurumena, eta zerbitzuak eta obrak.

3) Ongizatea: 2,4 milioi euro. Usurbildar guztiei, izan gaz-

te izan heldu, bizi kalitate hobea eskaintzeko helburuz, 2.470.000 euro bideratuko dira datorren urtean, aurrekontu osoaren %21,85, zehatz esanda.

4) Udala herriaren zerbitzura: Ia 5 milioi euro. Egitasmo horiek guztiak aurrera eramateko, udal gobernuak argi du udal baliabideak herriaren zerbitzura jarri behar direla. Eta asmo horren isla da atal horrek duen aurrekontua: 4.900.000 euro, hau da, aurrekontu osoaren %43,33. Hiru eurotik bat pertsonalga gastuek eragiten dute, arlo publikoari ematen zaion garrantziaren adierazgarri, eta kalitatezko zerbitzu publikoak usurbildarrei eskaintzeko helburuz.

5) Naziogintza eta elkartasuna: 136.000 euro. Usurbil Euskal Herriari eta munduari begira

ere badago, eta datorren urtean ere diruz lagunduko dira Euskal Herriaren nazio erakuntza sustatzen duten proiektuak, Udalbiltza eta UEMA kasu, eta, Euskal Fondoaren bidez, garapen bidean dauden herrialdeak.

Aurrekontu horien bidez, beraz, usurbildarren eskubideak, bizi-kalitatea eta ongizatea bermatu nahi ditugu. Horren lekuko da, esaterako, gizarte-politiketan murrizketarik ez egitea eta behar larriak dituzten herritarrei laguntzak bermatzea. Pertsonak eta herritarrak erdigunean jartzen dituzten aurrekontuak dira.

Aipagarria da, halaber, datorren urtean inbertsioetara 3,3 milioi euro bideratzea (Zumarteko 2 milioi euro aparteko finantziarioekin), eta diru-laguntza gisa banatuko den dirua, hau da, 800.000 euro. Herrigintza/udalgintza egiteko modua erakusten du datu horrek. Auzolana eta elkarlanari ematen diogun garrantziaren isla da.

Horretarako, ezinbestekoa izan da sarrerak eta gastuak orekatzea. Ahalegin berezia egin dugu horretan. Sarrerak zuhurtziaz kalkulatu ditugu, eta gastu arruntak ahal den neurrian mugatu ditugu, inbertsioetarako diru gehiago bideratu ahal izateko.

“Sei bilera egin ditugu herritarrekin”

NOAUA! Udazken partean iragarri zenuten 2018ko udal aurrekontu proposamena. Auzoz auzo, bilera erronda bat egin zenuten. Zer nolakoa izan zen herritarren erantzuna? Aurrekontu hauetan (edo hurrengoetan) txertatzeko moduko iradokizunik jaso al duzue?

EH Bildu. Sei bilera egin di-

tugu herritarrekin, eta udal langileekin ere bi bilera egin ditugu; guretzat, ezinbestekoa baita, besteen artean, udal langileen ekarpenak biltzea eta proposatutako egitasmo edo lan ildoak beraienak egitea. Pozik gaude bilerek utzi duten emaitzarekin, izan ere, gertuko harremana lantzea

ahalbidetzen dute, herritarren kezkek eta beharrak bertatik bertara entzutea... Guk zinez eskertzen dugu bilera hauetara etorri eta ekarpenak egitea, ez baitugu dudarik denon artean landutako herrigintzak balio handiagoa duela, gutxi batzuen artean egindakoak baino. Ahal izan ditugun pro-

posamenak aurrekontuetan txertatu ditugu. Eta bestelako proposamen batzuei ere bide eman diegu. Esaterako, Aginagan, herriaren antolamendu urbanistikoaz hausnartzeko eta proposamen bat egiteko lantalde bat sortzeko beharra jarri zen mahai gainean, eta jada horretan ari gara lanean.

“Hilerri zaharrea parke bat egiteko asmoa dugu”

NOAUA! Inbertsioetaz hitz egi-terakoan, badira kontsentsua eragin duten hainbat neurri. Zumarte Musika Eskolaren birgaitzea, Oiardo Kiroldegiaren berregokitzea eta Artzabalgo plazaren berritzea. Beste inbertsiorik egingo al da? Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

EH Bildu. Hiru horiek dira nagusiak. Aspaldiko beharrak dira, eta datorren urtean heltzeko moduan izango gara. 2018an 3.325.326 euro bideratuko ditugu inbertsioetara. Dirutza horretatik 2 milioi euro Zumarte musika-eskola berri eta handitzeko izango dira. Lan horiek eragingo duten gastuei aurre egiteko, udalak aparteko finantziarioa lortu du: bi milioi euroko kreditua lortu du, eta hamar urtean ordainduko da.

Beste inbertsio garrantzitsuetako bat kiroldegian egingo da, herritarren aukera-berdintasuna eta inklusibitatea



“Hilerri zaharra berregokitzeko 63.000 euro bideratuko dira”.

EH BILDU

“Buruan daukaguna da parke bat egitea, lasai egoteko aukera eskainiko duena, ikastolarekin loturak hobetuko dituen”

bermatzeko: zehazki, igerileku txikia irisgarri egin eta handitu

egingo da, azpiko instalazio, hodi, galdara eta abarrak berritzearekin batera. Lan horiek egiteko, udalak 581.000 euro bideratuko ditu. Lanak aurtentzian hasi eta bukatuko dira.

Artzabalgo plaza berritzeko, beste 150.000 euro bideratuko dira.

Eta horiez gain, bada beste

inbertsio garrantzitsu bat ere: hilerri zaharra. 63.000 euro bideratu dira. Hilerri zaharra erabat hustu eta herriak berreskuratzeko duen espazio publikoa izango da. Oraingoan, buruan daukaguna da, parke bat egitea, egoteko eta paseatzeko toki bat izatea, lasai egoteko aukera eskainiko duena, ikastolarekin loturak hobetuko dituen. Izan denaren esentzia, modu batez edo bestez, mantenduko dugu.

Bestelako inbertsio txikiagoak baina ez horregatik garrantzia gutxiagokoak ere aipatu genitzake, efizientzia energetikoa hobetzeko 30.000 euro, hondakinen prebentzioan aurrera pausak egiteko 20.000 euro, Oria Ibaiaren PEP (paisaia ekintza plana) eta mugikortasunari lotutako inbertsioak 50.000 euro.

Eta Zubietako Herri Batzarak kudeatzen dituen 70.000 euro.

“Oposizioaren jarrerak tristatu egiten gaitu”

NOAUA! 2018ko udal aurrekontuak ez zuen oposizioaren babesa izan. PSE-EEK eskola publikoari muzin egitea egotzi dizue. EAJ-PNVk aldiz, gerora begiratzen ez duten aurrekontuak direla dio. Udal gobernutik, nola interpretatu duzue oposizioaren diren alderdien posizioa?

EH Bildu. Ez dugu ulertzen oposizioaren jarrera, eta tristatu ere egiten gaitu. Elkarlanari

ate guztiak ixten dizkiote. Guk eurekin negoziatzeko jarrera irekia izan dugu hasieratik. Egutegi bat ere adostu genuen batzordean. Baina, gure harridurarako, ez dute ekarpen bat bera ere egin. Ondorioz, ez dugu ezer izan negoziatzeko. Aurka bozkatzeko eman dituzten arrazoiak aurrekontuekin zerikusirik ez dute. Aurka bozkatu nahi zuten, eta kitto.

EAJren esanetan, 2018ko

aurrekontuetan ez omen da jasotzen Zumarte musika-eskola berritzeko gasturik. Gure taldeak zein Karmele Lizaso kontu-hartzaileak eman izan dizkiogu behin baino gehiagotan horren inguruko azalpenak. Kontu tekniko bat baino ez da. Gure konpromisoa erabatekoa da Zumarterekiko: lanak aurtentzian bertan hasiko dira.

PSE-k, bere aldetik, eskola publikoaren gaiarekiko izan

omen dugun interes faltagatik bozkatu zuen aurka. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin oraindik bildu ez izana txarretsi zuen. Oker dabil, ordea. Gure konpromisoa erabatekoa da gai honetan ere. Izan ere, bi alditan egin dugu Hezkuntza Sailarekin biltzeko eskaera, idatziz. Gaiaren gainean gaude, baina oraindik Cristina Uriarte sailburuak ez digu erantzun ere egin.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

AMA, EZ LARRITU TA DEITU XABIERRI, ETXETRESNAK KONPONTZEN DITU
645 417 665

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

2018ko lan egutegian, hauek izango dira usurbildarren ospakizun egunak

Eusko Jaurlaritzak 2018rako jai egutegia onartu zuen joan den urrian. Espainiako jai egutegiarekin bat eginez, guztira 12 festa egun finkatu dituzte urte berrirako Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. 2018an ere Espainiako eta erlijio ospakizunek baldintzaturiko jai egunak izango ditugu; martxoaren 29a, 30a, apirilaren 2an, maiatzaren 1a, abuztuaren 15a, urriaren 12a, azaroaren 1a, abenduaren 6a, 8a eta 25a.

Santixabel Eguna, jai berriz ere
Jai egun hauei, udalerrri mailakoa batu behar zaie. Hori herri bakoitzak hautatzen du. Iazko maiatza amaierako osoko bilkuran erabaki zuen uztailearen 2a izango dela berriz Usurbilgo jai eguna 2018an. Astelehenez egokituko da aurtengo Santixabel Eguna. Iaz igandez egokitu zen. Ho-



Astelehenez egokituko da uztailearen 2a eta jai eguna izango da. Iaz, jai eguna ekainaren 30era aurreratu zen.

JAIEN EGUTEGIA

2018an ere Espainiako eta erlijio ospakizunek baldintzaturiko jai egunak izango ditugu

regatik, salbuespen moduan, usurbildarren jai eguna ekainaren 30era aurreratzea erabaki zuen Udalak.

2018ko ospakizunak

Segidan bildu ditugu, egutegi kontuengatik, urtez urte data aldakorra izaten duten ospakizun nagusien egunak:

- Otsailak 9, 10: Inauteriak.
- Apirilak 21: VI. Dantza Eguna.
- Maiatzak 20, igandea: 37. Sagardo Eguna.
- Azaroak 25: Erle Eguna.
- Abenduak 16, igandea: San Tomas Azoka.

Urtarrilaren 27an, erraustegiaren goi-tentsioko linearen aurkako mendi martxa

Gipuzkoa mailako deialdia egin du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak urtarrilaren 27rako. Erraustegiaren goi-tentsioko linearen aurkako mendi martxa antolatu dute hilabete honetako azken larunbaterako. Egitasmo honi buruzko zehaztasunak ezagutzeko aukera egongo da, hain zuzen goi-tentsioko lineak zeharkatuko dituen parajeetan.

Gogoan izan, 2016ko udazkenean ohartarazi zuen Lasarte-Oriako Aire Garbia herri plataformak goi-tentsioko linea eraiki nahi zuela Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak

(GHK), erraustegia sare elektrikorako lotzeko. "Linea berria, 132 kV-koa, erraustegian bertan hasi eta sare nagusiarekin Urnietan lotuko litzateke, Elutsetako Arkaitzen inguruan. Guztira 5 kilometro, Zubieta, Lasarte-Oria, Andoain eta Urnietan barrena", aditzera eman zuten.

Lana udazkenean lizitatu zuten

Udazken honetan urrats berri bat eman zuen GHK-k. Goi-tentsioko linearen lizitazioa abiatu zuen. Lizitazioerako eskaintzak aurkezteko hilabeteko tartea egon zen urria eta azaroa artean. Behin kontratua formalizatu ostean, urtebeteko epea izango luke esleipenaren

onuradunak, goi-tentsioko linea eraikitzeko.

Urtarrilak 27, larunbata,

Irteerak Azkorterera

- 10:00 Lasarte-Oriako Okendo plazatik eta Andoaingo Goiko Plazatik.
- 10:30 Urnietako Zaldundegitik eta Hernaniko Gudarien Plazatik.
- 11:30 Proiektuari buruzko informazioa eskainiko da Azkorteke ermitan. Ondoren, Lasarte-Oriara ibilbidea.
- 13:00 Azken ekitaldia Lasarte-Oriako Okendo plazan.
- Deitzailea: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.

Urbil hizpide izango duen herri batzarra

Urbil merkatalguneak Usurbilgo Udalari egin dion eskaeraren berri eman, Udalak duen ikuspuntua herritarrekin partekatu eta "denon artean iritzi bat osatzeko" herri batzarra deitu du Usurbilgo EHBilduk datorren asterako. Zehazkiago esanda, urtarrilaren 18rako arratsaldeko 19:00etan Po-txoenean. Herritarrei bertaratzeari deitzen diete.

Kantu zaleek, ikasturte berria martxan

Azken asteotako etenaldiaren ostean, abestera itzuli dira Kantu Taldekoak. Urtarrilaren 8an abiatu zuten ikastaro berria. Gogoan izan, astelehenero biltzen dira 18:00-19:00 artean Udarregi Ikastolaren Agerialde eraikineko musika gelan.

Kantu-jira, hilaren 27an

2018ko lehen kantu-jira eguerdiz ospatuko da, 12:00-14:00 artean Kaxkoan. Mikel Laboa plazatik abiatuko da kantu-jira.

Etumeta AEK euskaltegian matrikulatzeko aukerak zabalik jarraitzen du

Urrian hasi zuten 2017-18 ikasturtea, baina zabalik segitzen du matrikulazio epeak Etumeta AEK euskaltegian. Euskara ikasteko maila guztiak, Mintzalagun, autoikas-kuntza... eskaintzen dute. Aukera zabala beraz.

Informazio gehiago:

Nagusia, 43
607 609 379
usurbil@aek.eus
aek.eus
muntteri.blogspot.com.es

Berrikuntza lanak Oiardo Kiroldegian

30 urte betetzear ditu Oiardo Kiroldegia albiste izango da urte berri honetan. Instalakuntzak zaharkitu direla eta espazio falta ere badela ikusirik, irisgarritasuna bermatu, eta Kiroldegi inklusibo bat izateko bidean, inbertsio garrantzitsua egingo du Udalak 2018an bertan.

Udazkenean berri eman genizuen moduan, igerileku txikia irisgarri bihurtu eta handitu egingo du Udalak, egungo Kiroldegi sarrera alderantz. Bide batez, igerileku azpiko instalakuntza ere berrituko da. 580.000 euro bideratuko dira lanotara. Egitasmoa diruz lagunduko du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Konpentsazioa, obren eraginagatik

Obra guztiak bezala, eraberritze eta handitze lanok ere igerilekuaren erabilera baldintzatuko dute. Udaletik erabiltzaileei gutun bidez ohartarazi zaienez, "igerilekuko eremu osoa itxi egin beharko da uztailetik abendura bitarte (biak barne). Alabaina, aurren abonatuekin hartu ditugun konpromisoak betetzeko moduan izango gara, eta lanek ez dute eraginik izango aurtengo ikastaroetan (2017-18)".

Bai ordea hurrengo udazken parteko ikastaroetan. Horregatik, "lanek Kiroldegiaren erabilera mugatuko dutenez, uztaila eta abendua bitarteko hilabeteak barne dituzten abonu motei, %20ko konpentsazioa aplikatzea erabaki du Udalak. Bestalde, gogorazi nahi dizugu urtariletik ekainera arteko abonua ere egin dezakezula", ohartarazten zaie erabiltzaileei. Lanek iraun artean, Oiardo Kiroldegiko txartelarekin Andoain, Lasarte-Oria eta Urnietako kirol ins-



Igerileku txikia irisgarri bihurtu eta handitu egingo da. Igerileku azpiko instalakuntza ere berrituko da. Egitasmoa diruz lagunduko du Foru Aldundiak.

%20KO KONPENTSAZIOA

Lanek Kiroldegiaren erabilera mugatuko dutenez, uztaila eta abendua bitarteko hilabeteak barne dituzten abonu motei, %20ko konpentsazioa aplikatzea erabaki du Udalak

talakuntzak balia daitezke. Gai honi buruzko xehetasun gehiago, aurrerago jakinaraziko dituela iragarri dute Udaletik.

Itxierak

Egunotan itxiko da:

■ Arratsalde: martxoaren 29an eta 30ean, apirilaren 2an, maiatzaren 1ean, uztailearen 25ean eta 31n, urriaren 12an eta azaroaren 1ean.

■ Egun osoz: uztailearen 2an, abuztuaren 1etik 15era, abenduaren 3an, 24ean, 25ean eta 31n. (Abuztuan bigarren hamabostaldi osoan irekita egongo da).

Ordutegiak

Bi ordutegi ezberdin izaten ditu indarrean Oiardo Kiroldegiak urtean zehar. Bat uda partean, bestea gainerako hilabeteetan:

■ Urtarrila-ekaina/iraila-abendua:
Lan egunetan: 7:00-12:30/14:30-

22:00 (igerilekuaren itxiera: 12:15/21:00).

Larunbatetan: 9:00-21:30 (igerilekuaren itxiera: 21:00).

Igande eta jai egunetan: 9:00-13:30 (igerilekuaren itxiera: 13:00).

■ Uztaila eta abuztua:

Lan egunetan: 7:00-13:00/17:00-20:15 (igerilekuaren itxiera: 12:45/20:00).

Larunbatetan: 9:00-13:00 (igerilekuaren itxiera: 12:45).

Igande eta jai egunetan: 9:00-13:00 (igerilekuaren itxiera: 12:45).

Urteko bazkidetzak

Kiroldegiko erabiltzaileek prezio ezberdinak ordaindu behar izaten dituzte, abonumotaren eta iraupenaren arabera. Abonu familiarra dago, 18 urtetik beherakoentzat eta gorakoentzat beste abonumota bana. Abonuok norberaren udalerrian tramitatu behar dira.

Sarrerak

Kiroldegia baliatzeko sarrerak eskuragarri, prezio hauetan:

■ 18 urtez gorakoak: 6,10 euro.
■ 18 urtez beherakoak: 3,80 euro.

Informazio gehiago:

943 372 498
kirola@usurbil.eus
kirolak.buruntzaldea.eus



Droga trafikoagatik atxilotua

Ertzaintzak 49 urteko gizon bat atxilotu zuen urtarriaren 5ean Usurbilen. Bere ardurapean duen tabernan drogarekin trafikatzeko egosten zaio. Ertzaintzak ohar bidez jakitera eman duenez, duela hainbat aste "herriarren laguntzari esker" jakin zuen Ertzaintzak aipatu taberna honetan drogarekin trafikatzeko ari zirela eta joan den ostiralean miatu zuten edaritegia. 8 pertsona identifikatu zituen, tartean arduraduna. Miaketetan hainbat plastikozko poltsa aurkitu zituen Ertzaintzak. "Poltsetan ia 150 gramo speed, 10 gramo kokaina, 170 gramo haxix, sei LSD dosi, bi alanbre-biribilki, lau doitasun balantza, 435 euro, segur aski droga salmentakoak, eta dosiak prestatzeko hainbat poltsatxo zeuden", Ertzaintzak zehaztu duenez. Argazkia: ertzaintza.eus

Bilera Zubietako makrokartzelaz

Zubietako makrokartzelaz hitz egiteko urtarriaren 10ean biltzekoak ziren Donostiako Udala eta Espetxe Zuzendaritza. Martuteneko espetxearen leku aldaketa gauzatzeko konpromisoa datekin zehaztu asmo zuen hiriburuko udalak hitzordu honetan. Leku aldaketa hau egitea ezinbestekoa zaio Donostiako Udalari, Martuteneko espetxearen kokagunean aurreikusitako dituzten etxebizitzak eraiki ahal izateko.

Enpresa berak segiko du kudeatzen

Usurbilgo Eguneko Zentroa

Ireki zutenetik egin duten moduan, beste hiru urtez (5 urtera arte luzagarri) Gestion de Servicios Residenciales S. Coop. enpresak kudeatzen segiko du Kalezarren, Haur Eskolarekin eraikin berean kokatua dagoen Puntapax Eguneko Zentroa. Gunearen kudeaketa enpresa honi esleitzea erabaki zuen Usurbilgo Udaleko udalbatzak aho batez, abenduaren 19an egin zuen ezohiko osoko bilkuran.



Egun lanean den enpresak beste hiru urtez kudeatuko du Eguneko Zentroa.

Esleipen prozesua lehenago abiatu zuen Udalak. Urriaren 4ko ezohiko osoko batzarrean, Eguneko Zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emakidaz kontratatzeko espedientea eta administrazio baldintza zehatzen eta preskripzio teknikoan orriak onartu zituen udalbatzak.

Lan-baldintza duinetan

Udaletik azpimarratu dutenez, kalitatezko zerbitzua eta langileek lan-baldintza duinen lan egiten dutela bermatzeko, klausula sozialak txertatu zituzten pleguetan. Tartean, “langileen lan-baldintzak eta subrogaziorako eskubidea, hizkuntza-irizpideak eta gi-

zonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko baldintzak”. Baita, Puntapaxeko langileei “Gipuzkoako lan-hitzarmena ezartzeko betekizuna eta langile berriei orain arteko langileen baldintza berdinak aplikatzeko betekizuna”. Baldintzak gogortzearen ondorioz, enpresa bakarria aurkeztu zen lizitaziora, irekiera egunetik orain arte eta beste 3-5 urtez kudeatzen segiko duena.

Urteko aurrekontua, 260.220 eurokoa izango dela estimatzen du Udalak, “eta %4ko BEZa kontuan hartuta, 270.628,80 euro. Bost urterako estimazioa, horrenbestez, 1.301.110

eurokoa da (BEZ-ik gabe), eta %4a BEZ (52.044 euro) barne, guztira 1.353.144 euro”.

Eskaintzen diren zerbitzuak

Diziplina anitzeko ikuspegitik eskaintzen dituzte zerbitzuok, erabiltzaile bakoitzaren beharrrak kontuan izanda eta erabiltzaile bakoitzari egokitutako planak lantzen dira. Zerbitzuok eskaintzen dira:

- Ostalaritzako zerbitzuak.
- Oinarrizko arreta pertsonaleko eta eguneroko bizimodua berregokitzeko zerbitzuak.
- Zerbitzu sanitarioak.
- Zerbitzu psikosozialak.
- Informazio, arreta eta parte hartzeko zerbitzuak.

Mendekotasuna duten adinekoak bere ingurunean mantendu daitezzen Helburua

“Adineko pertsonen eta horien senideen bizi-baldintzak egokiak izan daitezzen laguntzea eta bi alderdiei ahalik eta autonomia eta bizi-kalitate handiena ematea. Eguneko Zentroaren bidez, mendekotasuna duten adinekoak bere ohiko ingurunean egon daitezzen bultzatu nahi da”.

Plaza kopurua

Egun astetartean 18 plaza ditu, asteburu eta jai egunetan 6.

Asteburuetako eskaria handituko balitz, plaza kopurua handitzea hitzartu ahalko du Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

Egutegia

Urte osoan zabalik, abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta 6an eta Udalak izendaturiko herriko jai egunean izan ezik.

Ordutegia

09:30-18:00 (astelehenetik ostiralera); 09:30-17:30 (asteburu eta jai egunetan).

Tren zerbitzuen ordutegi berria indarrean

Zenbait aldaketa txertatu ditu Euskotrenek urtarrilaren 8an indarrean jarri zuen ordutegi berrian. Inguru honi dagokionez, bi aldaketa nagusi aipatzen ditu Euskotrenek.

Debatik Donostiarako linea

22:44an Debatik Amarara

abiatzen zen zerbitzua desagertu egingo da, eta azkenengo 21:44koa izango da.

Amaratik Debarainoko linea

Amaratik Debara irtengo den azken trena 20:50ekoa izango da, 21:50ekoa Zumaiaraino baino ez baita helduko.

Lasarte-Hendaia arteko zerbitzua

Lanegunetan handitu egingo da trenen maiztasuna Lasarte-Irun tartean. 15 minutuz behingo zerbitzua eskainiko da bi noranzkoetan jardunaldi osoan, 30 minutuz behin zirkulatuko duten azkenengo trenen kasuan izan ezik. Larunbat goizetan

trenak 30 minutuz behin zirkulatuko dute, eta arratsaldetan 15 minutuz behin.

Informazio gehiago:

euskotren.eus

944 333 333

Euskotrenen app ofiziala

twitter.com/euskotrenEJGV

Urte berriari ongi etorria Andatzan



Ondoko irudiotako herritarrek mendian eman zioten ongi etorria 2018ari, Andatzako buel-

ta eginez alegia. Trikitilari eta guzti dituzue aterpe parean ateratako argazkietan belau-

naldi ezberdinetako usurbildarrak, giro ederrean. Irudiak: andatzan.com

Arran gazte mugimendukoek lekukotza

Usurbilgo Ernai gazte erakundeak Gazte Topaketak antolatu zituen Eguberrietan. Abenduaren 28an Kataluniako prozesuaz hitz egitera etorri ziren Kataluniako Arran Gazte Erakundeko kideak. Arratsalde partean, Errekaleor auzoko egoera gertutik ezagutzeko aukera izan zuten.



Abenduaren 28an, Kataluniako prozesuaz hitz egitera hurbildu ziren.


'Egia bide, askatasuna amets' lelopean ekitaldia egin zuten frontoian

Euskal Herriaren askatasunaren alde bizitza eman duten herritarrek gogoan hartu zituzten abenduaren 30ean frontoian, "Egia bide, askatasuna amets" ekitaldian. Garai desberdinetan, bandera eta ideologia ezberdinekin, Euskal Herriaren askatasunaren alde bizitza eman zuten usurbildarrak gogora ekarri zituzten, musika, errezitaldi eta dantza tartekatu zituen hitzorduan.

"Gaur, 78ko erregimena pitzatuta eta agortuta dagoen honetan, hura ozenki salatu eta Independentziaren bidea aldarrikatu zutenei denborak arrazoi eman die. Erregimen harek-honek ez darama inora Espainiara ezik. Espainian eroso bizi nahi zutenek ez dute erosotasunik, ez bada 155ari men egitea.

Gernikako errautsetatik abiatuta Independentziarako bidean bizia eman duten guztiei historiak arrazoa ematen die. Ez ziren tronpatu! Ez Gernikan, ez Txibertan. Euskal Herriak aske izan nahi badu, okupatzaileen kateak apurru eta bere Estatu propioa eraikei behar du.

Haritz zaharraren hosto idortuak udaberriz udaberriz loratzen dira etengabeko bizi-berritzean. Guri dago-kigu Gernikako sukarrek suntsitu ez zuten Ametsa Egikaritzea. Iraganari arrazoa eman eta etorkizunari Euskal Estatu Euskalduna eskaintzeko".



Musika, errezitaldia eta dantza tartekatu zituzten.

Motxiladun haurrek ere,

Gurasoak preso dituzten haurren inguruko dossierra osatu dute. Errealitate honek haurrengan duen eragin psikologikoen azterketa bideratu dute bi psikologok, pedagogo eta irakasle batek. Lan talde honetako bi kide gonbidatu zituen Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak abenduaren 19an Sutegira; Araitx Zubimendi irakaslea eta Izar Etxera! Plataformako kidea, eta Iñaki Barrutia psikologo klinikoak. Gutxitan jorrazten den gaia hartu zuten ahotan: “Espetxea eta umeak”.

Gai honi buruz aditu taldeak egin duen lanketak ondorio argia uzten du agerian; euskal presoek pairatzen dituzten eskubide urraketak nabarmen sufritzen dituzte haien haurrek ere. “Sakabanaketak haurtzaroko zati garrantzitsua lapurtu die”, zioten Sutegin.

Asteburua heltzean, aisialdiaz gozatu edo bere ama, aita edo guraso biak bisitatzeko ehunka kilometroko bidaia egin behar izatearen artean erabaki beharrean aurkitzen dira, motxiladun ume gisa ezagutzen ditugun kolektibo honetako kideak; 18 urtetik beherako 113 haur eta gaztetxo.

Nabaria da haiengan estresa eragiten dietela gurasoak bisitatzeko egin beharreko joan etorriek, errepideetako arriskuarekin batera. Aurrez ezinegon eta antsietatea eta lo hartzeko arazoak ere izaten dituztela. Bisitetan jasan behar duten espetxeetako giro erasokorra gaineratu behar zaio horri. Behin bisita egin ostean, gurasoengandik berriz urrundu behar izatea aski gogorra izaten da haurrontzat. Egunerokoan gurasoen falta sumatzeak, familia egitura barneratzeko arazoak eragiten dizkiete haurroi. Inpotentzia,



Abenduaren 19an, Araitx Zubimendi irakaslea eta Izar Etxera! Plataformako kideak eta Iñaki Barrutia psikologo klinikoak Sutegin eginiko solasaldian hartu zuten parte.

HAURREN EGOERA

Sara Majarenas eta Izar donostiarren kasua gizarteratzeak errealitate hau plazaratzen lagungarria izan dela gogorarazten dute. Gai hau lantzen hasi baitziren kasu honen harira

frustrazioa eta amorrua ohiko sentimenduak dira haiengan. Amorrua besteak beste, baita sakabanaketak eragindako gainzigorra sufritzen ari direla jabetzen direnean ere.

“Hutsune afektiboak izan arren, sozialki babestuak daude”

Galderak sortzen zaizkiela, ia zergatik dauden gurasoak kartzelan, noiz arte egongo diren, gaizkile-kartzela binomioa azaldu beharra suertatze dela... Kontuok argitzea ordea ez da erraza. Argi zioten Sutegiko solasaldian, konplexua dela erantzun erlatiboekin

galdera absolutuak erantzutea.

Baina Sutegiko solasaldian nabarmendu nahi izan zuten baita, gainerako haur askoren antzera, afektiboki ondo daudela, sozialki babestuak eta hutsune afektiboak izan arren zorientsuak direla.

Espetxean jaiotako haurren egoera

Sara Majarenas eta Izar donostiarren kasua gizarteratzeak errealitate hau plazaratzen lagungarria izan dela gogorarazten dute. Gai hau lantzen hasi baitziren kasu honen harira. Izar amarekin dago egun Madrilgo pisu tutelatu batean kartzela zigorra betetzen. Aurrez, Valentziako Picassenten zeuden espetxeraturik. Xua, Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga herritarrak bezala. Gurasoak ehunka kilometro-ra espetxean dituzten haurren errealitatearekin batera, espetxean jaiotako haurren egoera ere hor dago.

Mari Karmen Anzaren testigantza

Gai hau oso hurbiletik bizi duen herritar batek ere parte hartu zuen solasaldian; Mari Karmen Anzak, Olatz Lasagabaster presoaren amak eta harekin den Xua haurtxoaren amonak. Gogoan izan, hilabete honetan bertan urtea beteko duen umetxoa Olatzen alboan dago egun Picassenten.

Lehen urtea beteko du Xuak

Urtea betetzear du Xuak. Ez zen egoera errazean jaio. Bere aitona hil berria zuen Patxik haurra jaio eta hirugarren asatera arte ezin izan zuen ezagutu alaba. Eta ia 600 kilometroko bidea egin beharrean aurkitu zen biloba ezagutzeko Mari Karmen Anza. Valentziara heldu, gaixotu eta bertako ospitaleko ZIUn izan zen hilabetez. “Baina dena oso ondo aterata da azkenean, denok oso pozik gaude Xuarekin”, zioen Anzak irribarretsu Sutegiko solasaldian.

eskubideak urratuak

Xuak, badiu haurrei zuzendutako jolastoki eta aisialdirako baliabideak kartzelan. Baina azkenean, gutun bidez bere ama Olatzek kontaktatu zuenez, egunero 9 ordu baino ez dituzte egiten ziegatik at. Kasik presoaren bizimodua darama haurrak berak ere. “Espetxea espetxeago” egin zaiola nabarmentzen du Olatzek idatzi eta Sutegin irakurri zuten gutunean. “Dependentzia erabatekoa da espetxe eta etxe-koekiko”. Eta hemen agertzen da beste gaia: espetxe barruan eskusiboki amarena den zaintzaren gaia. Haurrak amekin daude egun osoan espetxean, “aita bigarren planoan geratzen da”. Xuaren kasuan bezala. “Astean 2 orduz, hilean 2 aurrez aurreko hirurok egoteko”, dio Olatzek Picassentetik. Preso diren aitek gogor borrokatu behar dute seme edo alaba ikusi ahal izateko.

“Ezinbestekoak dira etxean”

Picassent espetxean egongo da Xua 3 urtera arte, gero Usurbila etorriko da. Ama eta haurra bereiztuz eta urrun-



Olatz Lasagabasterrek eta Patxi Urangak urtebeteko haurra dute, Xua.

BI URTE BARRU

Picassent espetxean egongo da Xua 3 urtera arte, gero Usurbila etorriko da. Ama eta haurra bereiztuz eta urrunduz

duz. “Oso une gogorra da. Oso garrantzitsua da horregatik aurre hartzea, une horretarako garaiz prestatzea”, zioen Iñaki Barrutiak Sutegiko solasaldian. 24 ordu batera elkarrekin egotetik lantzean behin ikustera igarotzen dira guraso eta haurra. Konfiantzazko helduaren

babesa galtzen du haurrak, eta dossier honen egileek argi diote, bereizketa bortitz honek haurren izaera osatze prozesua kaltetzen du.

Testuinguru honetan argi utzi zuen Araitzek, “gure umeek ez dituzte preso sozialen haurren eskubide berberak”. Errealitate hau irauli litekeela gogorazten du, ez legedi berri batekin, indarrean dagoena aplikatuta baizik. Testuinguru argi aldatuenez, presoak “etxera itzultzeko arazorik ez” dagoela zioen Araitzek, eta gogorarazi zuenez, “ezinbestekoak dira familian”.

Manifestazioa eta Xuarentzako argazki ateratzea larunbatean Bilbon

Sarek deituta, euskal presoek pairatzen dituzten eskubide urraketak, urruntze politika eta salbuespen legedia amaitzea eskatuko dute larunbat honetan Bilbon. Aurtengoa inflexio puntua izatea nahi dute. “Gatazkaren ebazpena bideratzen duen hori euskal gizartea izatea ezinbesteko ikusten du Sarek”, nabarmentzen dute deitzaileek, “izan ere giza eskubideekiko babesa denoi dagokigu”.

Usurbilen Nahi Ditugu bil-

guneak eta Ernai Usurbil gazte erakundeak bat egin dute Bilboko mobilizazioarekin.

Autobus zerbitzua Usurbildik

Bilboko manifestazioari lotutako bi ohar garrantzitsu: ohi bezala hara joateko autobus zerbitzua antolatu dela Usurbildik. Bestetik, manifestazioaren aurretik, eguerdian, amarekin espetxean diren haurtxoentzako, tartean Xuari helarazteko herritarren argazkia aterako dela Porrotzekin Bizkaiko hiriburuan.

Urtarrilak 13, larunbata

■ 12:30 Espetxean amarekin diren Xua, Haitz eta Izarrentzat Porrotzekin argazkia ateratzeko deialdia Bilboko Areatzan.

■ 17:30 Manifestazioa Bilboko Kasillatik “Prest gaude” aldarripean.

Oharra: Bilbora joateko autobus zerbitzua antolatu da Usurbildik. Izen ematea aurrez, ohiko tokietan.

Informazio gehiago

sare.eus

Antolatzailea: Sare.

2018rako erronka, konponbidea

Argi denez, gozotik baino gazitik gehiago duen balantzea egin zuen Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak 2017. urtea agurtzeko, abenduaren 31n frontoian antolatu zuen ekitaldi berezian. Topa egin eta kantuan, abiatu berri dugun urteari eskari argi bat luzatu zioten; Xua, Olatz eta Patxi herrian nahi dituztela galdegitearekin batera, behingoz, konpondu dadila preso eta iheslarien egoera.

Urte zaharrak utzitako hainbat zenbaki kezagarri plazaratu zituen Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak: 302 euskal herritarrek segitzen dute preso, haietatik 22 gaixo larri. Senideek egin beharreko milaka kilometroetan 9 ezbehar izan zituzten. Balantzea: 20 zauritu, haietatik 4 larri. Eta kopuru hauen atzetan nabarmentzekoa noski, Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik adierazten zuten, “egon den sufrimendu itzela”.

Hainbat gertaera latz ere izan ziren iaz. Tartean, Xuaren amonak pairatutako egoera. “Ez zen egoera errazean jaio Xua, bera zorionez ohar-tu ez bazen ere, bere amona Mari Karmen larriki gaixotu zelako”, biloba ezagutu ahal izateko Valentziaraino ehunka kilometroko bidaia egin behar izan zuenean.

Testuinguru honetan, estatuen blokeoen aurrean, gizarte zibilak hainbat eragile politiko eta sozialekin urratzen ari den bideak itxaropenarako gertakaririk izan dela ere nabarmentzen dute Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik, apirilaren 8ko Baionako ekitaldia, edota abenduaren 9ko Parisko mobilizazioa.



Udarregi ikastolako DBH, LH eta HHko ikasleak kantuan hasi zituzten Eguberrietako opor egunak.



Aginagan ere kantuan aritzeko aukera ugari izan da egunotan. Eskolako Txikiko ikasleak kalejiran ibili ziren eta baita Parrokia inguruko lagunak ere.



Zubietan ere, kantuan aritu ziren Eguberrien atarian.



Haur Hezkuntzako ikasleak Mikel Laboa plazaraino hurbildu ziren kantatzera.



Abenduaren 24an, euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko Olentzero eta Mari Domingi eguerdi partean ibili ziren kalez kale.



Abenduaren 24an, arratsalde partean abiatu zen Salbatore Parrokiak antolatutako kantu-jira.



Galtzagorriez babesturik eta astoaren laguntzaz iritsi zen Olentzero Aginagara. Usurbilen ere, harrera beroa egin zitzaion.



Abenduaren 26an, jende asko batu zen San Estebanen.



Hurbilagok ipini zuen izotz-pistak patinatzaile mordoak erakarri zuen.



Abenduaren 20an, txotxongilo ikuskizun bat antolatu zuten Sutegin.



Abenduaren 26tik 28ra, Gabonetako Jolas Parke bilakatu zen Oiardo Kiroldedia.



Olentzero eta Mari Domingi itxura honekin pasa ziren Haur Eskolatik.



Errege Magoen kabalgatak jendetza erakarri zuen. Goiz partean, erregeen laguntzaileak aurreratu ziren, haurren gutunak batzeko xedez.

Etorkizuneko Gipuzkoa hobetzen

Nazioarteko programa arautuetan parte hartzen ari diren unibertsitateko hainbat ikasleek Gipuzkoaren etorkizuna hobetzea xede duten proiektuak aurkeztu zituzten Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz ekimenaren baitan antolaturiko Altuning Pro Gipuzkoa sariketara. Epaimahaiak 2.000 euroekin nabarmendu dituen proiektuen artean, Ekhi Ajuria Illarramendi herritarrarena dago. “Teknologia Aeroespazialeko Berrikuntza eta Garapen Zentroa” gauzatzea proposatzen du etorkizuneko Gipuzkoan. Bere proiektu eta ikasketez zertxobait gehiago jakin nahian elkarrizketatu du NOAUA!k 22 urteko gazte usurbildarra.

NOAUA! Eginiko ahaleginaren emaitzarekin pozik ezta?

Ekhi Ajuria Illarramendi: Bai. Apirila aldera izan nuen lehiaketaren berri. Kanpoan zeuden gipuzkoarroi zuzendua zegoen. Gipuzkoa hobestea helburu izango zuen proiektu bat aurkeztu behar zen. Proiektuaren helburua da ikustea Gipuzkoan ze arazo ditugun, kanpoan ze arazo dauden, zu kanpoan zaudela nola eman erantzuna arazo horiei eta erantzun horiek nola ekarri hona, Gipuzkoa hobetzeko. Alegia, nola aplikatu ditzakegun atzerriko proiektuak Gipuzkoan, kanpoan ikasitakoa hona nola ekarri.

Erasmus beka batekin zinen Poitiersen (Frantzia). Handik aurkeztu zenuen proiektuak zertan hobetzen du etorkizuneko Gipuzkoa?

Frantzian praktikak egiten nabilela aurkeztu nuen proiektua. Prestatu nuen lehen zirriborro bat, beste gehigarri bat eskatu zidaten gero. Fase hau igarota,



Ezkerretik hasita, hirugarrena da Ekhi Ajuria Illarramendi. Epaimahaiak 2.000 euroekin nabarmendu dituen proiektuen artean da usurbildar gazteak aurkeztu duena.

EKHI AJURIA

“Teknologia Aeroespazialeko Berrikuntza eta Garapen Zentroa” gauzatzea proposatu du etorkizuneko Gipuzkoan

elkarrizketa pertsonal bat egin zidaten. Azkenean, sarituen artean egon naiz. Proiektu ireki eta zabala da, propulsiio espazialari buruzkoa, ziurrenik inoiz egingo ez dena, baina ideia hori geratuko da. Ikerketa gune bat gauzatzea proposatzen dut Gipuzkoan. Proiektua egiten ari nintzen lekua halako toki bat zen. Gipuzkoan batez ere makina-herraminta, elektronika eta potentzien kontrol pixka bat dugu, baina eremu honetan ez dugu ezer.

Gipuzkoak sektore aeroespazialean ezer gutxi du, Araban eta Bizkaian gehixeago dago.

Eremu honetan egiteko asko egon daiteke beraz?

Bai. Oraintxe bertan merkatua eboluzio handia izaten ari da. Propulsiioan motore elektrikoak garatzea du helburu neurri proiektuak, Gipuzkoan eremu elektriko eta elektronikoko enpresen eta ikerkuntza gune batzuekin elkarlanean. Hori izango litzateke abiapuntua, inbertsioak eta enpresa guztiak erakartzeko baliatu daiteke. Bestalde, Bordenetik bi ordu eta erdira gaude, Okzitaniako Tolosatik lau ordura. Estrategikoki ez gaude leku txarrean eta Gipuzkoaren kokagunea ere aukera gisa baliatzea proposatzen nuen.

Unibertsitate eta enpresen arteko elkarlanean sakontzea ezinbestekoa ikusten duzu.

Frantzian ikasi dudana gauza garrantzitsua batez ere hori izan da. Poitiersen egon nintzen, Bordenetik eta Paris artean. 100.000 biztanle baino gutxiago ditu, industriarik ez du. Unibertsitatearekin harreman handia izanda, erregaietan eta turbulenzian espezializatu dira batez ere. Nahiko ikerketa zentro potentea atera dute ezerezetik, unibertsitateekin hartueman handia dutelako. Doktore tesi garrantzitsuak eta praktika mordoak ateratzen dituzte, eta modu horretan, proiektu mordoak garatzen dute.

Hemen aldiz, ikerkuntza guneak eta unibertsitateak apur bat bereizita daudela ikusten dut, ez dago Frantziako enpresa eta unibertsitateen artean dagoen harremana. Hori gehiago lantzea gustatuko litzaidake. Egia da, esatea oso erraza da, gero araudi, hitzarmen, eta gauza asko daude atzean ezagutzen ez ditugunak. Baina berez, unibertsitate eta industriaren arteko harremana estutzea asko gustatuko litzaidake eta hau lehenengo pausoa izango litzateke. Unibertsitate eta enpresen arteko erdigune bat izango litzateke, elkartzeko aukera bat.

laguntzeagatik saritua

NOAUA! Halako proiektuak landu eta saritu ostean ezingo luke kaxoi batean sartuta geratu. Zer bide egin dezake zureak?

Ekhi Ajuria Illaramendi: Neurea izango litzateke saritu dituzten artean zailena gauzatzen, inbertsio handia beharko litzateke, eta oraintxe bertan pixka bat zaila dago kontua. Markel Olanok sariketa egunean esan zigun inbertsioak egiteko 6 zutabe nagusi zituztela, baina sektore aeroespaziala ez zegoela horien artean. Horietatik kanpo inbertsio handia lortzea zaila litzatekeela, baina aurrerago kontuan izatea posible litzatekeela. Hemen ditugun ikerkuntza guneak kontuan hartu eta proiektu txikiak, doktore tesi edo praktikaren bat ateratzen hasten badira, horiek izan daitezke agian lehen urratsak.

Etzekoen talentuan gehiago inbertitu beharko litzateke, talentudunei ihes egiten ez uzteko?

Duela gutxi Talent Foruma egin



“Neurea izango litzateke saritu dituzten artean zailena gauzatzen”, Ekhi Ajuria Illaramendik aitortu digunez.

EKHI AJURIA

“Gipuzkoan, makina erramintan oso ondo gaude baina nire sektorean zailxeago dago. Faltan botatzen dut”

zuten Miramonen, kanpoan dauden gipuzkoarrentzat. Batez ere lanean egon eta etxera bueltatu nahi dutenei zuzendua zegoen. Enpresa ezberdinekin elkarrizketak egiten

zituzten perfila ikusteko, kontraturen bat sinatzeko, jendea berriz ekartzeko, azkenean talentuak erakartzeko. Zer panorama zegoen ikustera joan nintzen. Industria hemen bada baina neure sektorekorik ezer gutxi. Neure sektorean ikusi nuen adibidez, ikerkuntza gune batean, proiekturen bat ateratzen dutela. Gipuzkoan, makina erramintan oso ondo gaude, baina sektore honetan zailxeago dago, faltan botatzen dut.

Okzitaniako Tolosan dago aurten, propulzio sistema aeroespazialei buruzko masterra egiten

NOAUA! Diozunagatik epe motzean atzerrian ikusten duzu zure burua?

Ekhi Ajuria Illaramendi: Egia esan bai. Etxera bueltatzea gustatuko litzaidake, etxean bezala ez gara inon bizi. Baina badirudi Frantzian geratuko naizela pixka batean. Ingenieritza aeronautikoa ikasten aritu nintzen Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan lehen hiru urteetan, laugarren urtea Erasmus bekarekin Poitiersen egin nuen, eta hortik zuzenean, he-

gazkinen motorretan espezializaturiko propulzio sistema aeroespazialei buruzko masterra egitera joan naiz Tolosara (Okzitania). Urtebeteko masterra da. Irailean hasi nintzen, martxotik irailera praktikak egin behar ditut.

Gerora ere bai?

Gerora ere lan aukeretan, doktore tesiren bat egin nahi badut, nahiko ondo dago Frantzia. Gutxienez, eremu hau askoz garatuagoa dago. Gero ez dakit,

agian herrian bukatuko dut.

Etzetik gertu lan aukerarik sortuko balitz hobeto?

Egia esan hobeto, gurasoak beti ditut etxera bueltatzeko esanez. Nik orain argi dut, gaztea naiz eta egin ahal dudana hoberena da asko ikasi eta kanpoan bada hobe. Mundua ikusi, ikasi eta gero jada aurreraxeago etxera itzultzea. Kontua da aurreraxeago etxera itzultzea zailxeagoa izango dela. Baina kanpoan egoteko batere arazorik ez dut.

“Kanpoan ikasiz zure ikuspuntua irekitzen duzu”

Atzerrian bizi eta ikasteak norbera aberastuko du. Aholkagarria iruditzen zaizu kanpora joatea?

Ekhi Ajuria Illaramendi:

Guztiz. Edonori bitan pentzatu gabe joateko aholkatuko nioke argi eta garbi. Txikitatik nahiko mugitua izan naiz. Zuzenean Madrilera joan nintzen batere beldurrik gabe. Frantziara ere hala joan nintzen. Esperimentzia izugarria da, besteez asko ikasten duzu. Oso jende ona ezagutu, lagun piloak egin eta beste kultura batzuk ezagutzen dituzu. Hizkuntzak praktikatzeko aukera ederra da. Zure ikuspuntua guztiz irekitzen duzu. Azkenean beste perspektiba batzuk ikusten dituzu munduan, ikusten duzu jendeak nola eta zergatik pentsatzen duen, oso aberatsa eta gomendagarria da. Zalantzan egonez gero joan, ez duzu ezer galtzen eta irabazteko asko duzu. Atera, mundua ezagutu eta gero itzuli. Baina atera.

Ikasketa hauekiko interesa, betidanikoa izan da?

Erronka gisara hartu izan dut beti. Ingenieritza beti gustatu izan zait. Matematika, fisika beti gustatu izan zait, batxilergo zientifiko teknikoa egin nuen. Ingenieritzaren bat egin nahi nuen. Ez nuen oso argi zer ingenerieritza, eta erronka gisa hartu nuen, Madrilera ikastera joatea. Gainera ikusi nuen beste hiru usurbildar ere bazebiltzala han...

Eginiko apustuak merezi izan du?

Bai, oso pozik nago. Egia esan gogorra izan da. Baina oso pozik nago, merezi izan du.

European baina umoretsu osatu zuten San Silvestre lasterketako ibilbidea



Udaltzainekin batera, zaintza lanetan aritu ziren Orbeldi Dantza Taldekoak. Ezkerreko irudian ageri denez, korrika ere aritu ziren azken metroetan.

Giro euritsua tarteko, ez zen beste edizioetako bezainbesteko jendetzarik, baina usurbildarrek beste behin, negu

giroari aurpegi ezin ederragoa erakutsi zioten. Kolorea eta umore onik ez zen falta Hurbilago ostalaritza eta merkata-

ritza elkarteak antolatzen duen lasterketan.

Adin guztietako herritarrak irten ziren, kalea hartu eta korri-

kan euritan gozatzeko, Kaxkoari bi itzuli emanaz. Hasieratik amaierara, irribarrea galdu gabe.

Opari mordoa, Hurbilagoren Gabonetako Zozketan

Opari mordo bat banatuz eskertu nahi izan zien Hurbilago Elkarteak usurbildarrei erosketak herrian bertan egitea. Abenduaren 31ko 8. San Silvestre Herri Lasterketa amaieran eginiko Gabonetako Zozketan izan zen.

Saizar Sagardotegian dastatu ahal izango diren 4 afari zozketatu zituzten eta Hurbilago Elkarteko saltokietan xahutzeko 50 euroko 25 bale.

Segidan doakizue sarituen zerrenda. Ohartuko zaretenez, kasu batean baino gehiagotan izena bakarrik aipatzen da, sarituen zozketarako txarteletan abizenik ez dagoelako idatzia.



Hurbilago elkartekoek lau afari eta 50 euroko 25 bale zozketatu zituzten San Silvestre herri lasterketaren amaieran.

Halere, Hurbilago Elkarteko ki-deak sarituokin guztiokin hartuemanetan jartzekoa zen egunotan, sariaren berri emateko.

4 afari Saizar sagardotegian

Salvatore Arruti Aranburu, Martxelo Sanchez, Unai, Dionni.

50 euroko 25 bale

■ **Gastronomia:** Agurtzane, Txaro Utrera, Hodei Girado Irasuegi, Manuel Fernandez, Mila.

■ **Moda osagarriak:** Karmele Salsamendi, Dora Marin Sarante, Ramon Kamino, Xoko.

■ **Edertasuna eta osasuna:** Antton Aranburu, Bittor Olarra, Bego Izeta, Mari Karmen Matxain, Yvonne Janariz.

■ **Liburuak eta jostailuak:** Maritxu, Juan Mari, Ilargi Harto.

■ **Etxeko artikuluak:** Maribi Brel, Txaro, Juan Manuel Blanco.

■ **Janaria:** Joxe Mari Irazusta, Ainara Beobide, Isabel, Oihana Delso Aizpurua, Sua Loiti.

Nerea Agudo: “Bi ogi oparituko dizkigute egunero”

Urtarrilaren lehenean, goizeko 4:15ak aldera jaio zen Ander Aranburu Agudo usurbildarra. Hain egun eta ordu seinalatuan jaiotzeagatik, AGIPAN elkarteak urte osorako ogia oparituko die Anderren etxekoei. Bitxiena zera da: Anderren ama, Nerea Agudo, okindegi bateko langile dela. Hala ere, pozarren hartu du albiste. Hauek izan dira idatziz egin dizkigun adierazpenak.

NOAUA! AGIPAN elkartearen kanpainak xede hau du: ogiak elikaduran duen garrantziaz ohartaraztea. Nola hartu duzue albisteak?

Nerea Agudo. Ospitalean eman ziguten albiste. Emagin batek AGIPANeko kide batekin jarri gintuen harremanetan. Urte



Urtarrilaren 1ean ekarri zuten umea mundura. Opari eta guzti iritsi zen. Argazkia: Facebook.

Gipuzkoan, urteko lehen egunean jaio ziren lehen bi umei ogia oparituko die AGIPAN elkarteak. Ander Aranburu Agudo izango da sarituetako bat

osoan zehar, egunean bi ogi emango dizkigute.

Non jasoko duzue ogia?

N. A. Adostasun batera iritsi gara eta Usurbilgo Alperroburun dagoen Labe-Goxon jaso ditzakegu.

Zu okindegi bateko langilea zara. Zer nolako kasualitatea, ezta?

N. A. Ez dakizu zer nolako zalaparta sortu duen albisteak. Hamasei urte daramatzat okindegietan lanean, pentsa! Nire lankide izandako guztiak idatzi didate. Bitxia benetan, bai.

Ogizaleak al zarete etxean?

N. A. Etxean oso ogizaleak gara, bai.

Ahalduntze ikastaro berriak

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak emakumeei zuzenduta antolaturiko bi ahalduntze ikastaro abian jarriko ditu egunotan. Bat, emozioak hizpide izango dituen, Pepa Bojo psikologoak bideratua, urtarrilaren 11tik martxoaren 22ra, ostegunero 17:00-19:00 artean, Bake Epaitegi atzeko lokalean. Urtarrilaren 9an itxi zuten ikastaro honetarako izen ematea.

Modari lotutako ikastaroa

Ostegun honetara arte, urtarrilaren 11ra arte apuntatu daiteke aldiz, “gorputz ikusezinak ikusten. Moda, jabekuntza feministarako tresna” izeneko ikastaroan. Maddalen Adurizek bideratuko dituen saioak, larunbatetan izango dira (urtarrilaren 13an eta 27an, otsailaren 10 eta 24an, martxoaren 10 eta 24an), 09:30-13:30 artean Potxoenean. “Ikastaroaren helburua da deserakitzea moda eredu dominantea, emakumeok zapaltzen gaituena, ikusaraztea ikusezin egindako gorputzak eta baliatzea jostintza jabekuntza feministarako tresna gisa, gure gorputzak boteretu eta horietaz gozaten ikasteko. Ikusarazi eta aldarrikatuko dugu gorputzen aniztasuna, ikasiko dugu patrioiak egiten, gure gorputzei egokitzen zaizkien. Gure sormena josi eta gorputzuko dugu, eta moda jasangarria jantzi”.

Izen ematea, doan

Izen ematea doan urtarrilaren 11ra arte Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailean, parekidetasuna@usurbil.eus helbidera idatzita edo 943 377 110 telefono zenbakira deituta.

Usurbildarrek izango dute lehentasuna.

Nafartarrak taldea: “Mila esker Usurbilgo eta inguruko herrietako erosleok”

Nafartarrak taldekoak azaroan hasi ziren Eperra Ikastolaren aldeko kanpaina sustatzen. Eta ohi bezala, Santomas Azokan amaitu zen diru-bilketa kanpaina, Zuberoako produktuez osaturiko saskien banaketarekin. Nafartarrek aditzera eman dutenez, Zuberoako Eperra Ikastolako ordezkari moduan gerturatu ziren gurasoak “pozik etxeratu ziren”.

10.500 euroko bilketa

Badira urte batzuk Zuberoako produktuez osatuta saskiak saltzen hasi zirenetik. “Aurtengoan 10.500 euroko salme-



Eperra ikastolako gurasoak (eskubikoak) Santomas Azokan izan ziren.

ta eskuratu dugu. Beraz, mila esker Usurbilgo eta inguruko herrietako erosleok”. Saskietako produktuen ekoizleak

halaber, Eperra Ikastola urteetan sostengatu izan duten edo sostengatzen duten pertsonak dira.

Ostiraletako zinea, astebete beranduago

Udarregi Ikastolako DBH4-ko ikasle taldea duzue ondoko irudian, abenduaren 17an ospatu genuen NOAUA!ren San Tomas Azoka egunean. Etxean egingako postre gozoak saltzen aritu ziren haien postura bertaratu zirenei. Jasotako dirua, apirila amaieran Bartzelonara egingo duten bidaiako gastuei aurre egitera bideratuko dute. Baita azaroz geroztik, Sutegin antolatzen ari diren zine zikloan (pelikulak jatorrizko bertsioan, euskarazko azpitoluekin) jasotako laguntza ere.



Argazkian, DBH4-ko ikasle taldea. Zine zikloa eurek antolatzen dute.

'Girlhood' filma

Hirugarren ostiraletan eskaini ohi duten eta zinemetan ikusterik ez dugun urtarrileko

proiektzioa astebete atzeratu dute. Hilaren 26an eskainiko dute 19:00etan Sutegin; "Girlhood".

Neguko usadio zaharren txanda

Gabonen ostean, ospakizun gehiago negu parte honetan. Danbor hotsek girotuko dizkigute ikastetxeak hiriburuari aurre hartuz urtarrilaren 19an, Donostia Egunaren bezperan. Otsailaren 4a Santa Ageda bezpera izango dugu eta astebetera helduko dira inauteriak.

Otsailaren 9an ikastetxeetan ospatuko dute moztorro festa. Udarregi Ikastolan, aurten betekote dituen 50 urteen inguruko jaialdia. Horren harira hainbat ospakizun antolatzen lanetan

dabiltza. Prestaketa lanetan laguntzeko deia egingo dute ikastolatik. Argibide gehiago: udarregi.eus / 943 36 12 16

Inauteri Festa

Otsailaren 10ean ospatuko dugu Inauteri Festa Usurbilen. Gogoan izan, Euskal Herriko pertsonaia ezagunetaz moztortzeko gonbita luzatua dizuegula. Datorren asteetan xehetasun gehiago.

Txotx irekiera

Sagardo berria dastatzeko aukera ere badator. Sagardo-



Otsailaren 10ean ospatuko da Inauteri Festa.

tegietarako erromesaldia hasietar da. Ohi bezala, Usurbilgo Udala kide duen Sagardoaren Lurraldeak abiatuko du ofizialki denboraldia. Datorren astelehenean, urtarrilaren 15ean, 12:00etan Astigarragako Sagardoetxean deitu duen ekitaldian.

Primerako talogileak

Etumeta AEK euskaltegiko irakasle eta ikasleek Atxegaldeko Mahaspildegiko elkartearen ospatu zuten San Tomas Eguna. Modu ezin egokia goan. "Taloak egin genituen denak elkarrekin. Ze ondo pasa genuen Mahaspildegiko elkartearen!", adierazi diote NOAUA!ri, ondoko talde argazki hau helaraztearekin batera.



Etumeta AEK euskaltegiko ikasleak, Mahaspildegin.

Danbor hotsak, ate joka

Donostia Egunari aurre hartuko diote aurten ere Udarregi Ikastolan. Ikasleen danborrada saioek girotuko digute bezpera Agerialdeko eraikin parean:

Urtarrilak 19, ostirala

Udarregi Ikastolan:

- 15:45 HH-koen saioa. Eguraldi txarrarekin, Agerialdeko patioan aterpean.
 - 16:10 LH-koen saioa. Eguraldi txarrarekin, Agerialdeko sarrerako frontoi txikietan.
- Antolatzailea: Udarregi Ikastola.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patxi
Patxi
bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrena 5

ZENDOIA ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

GHK-k erraustegiko lanen bigarren fasea abiarazi du

Gipuzkoako Hondakinen Kortsortzioak (GHK) abenduaren 26an eginitako batzarrean, erraustegiko lanen bigarren fasea abiatzea erabaki zuen. Neurri hau indarrean, biometanizazio planta bat eta "zepen zahartzapen planta" eraikiko dituzte Zubietan ginean.

Erraustegiaren eta tratamendu mekaniko biologiko planta altxatzen ari diren gunearen ondoan altxatuko dituzte bi guneak, "31.988 m²-ko partzela bat hartuz, lehen guntetik 300 metro eskasetara. Bigarren faserako aurreikusten den inbertsioa 37 milioi euro



Bigarren faserako aurreikusten den inbertsioa 37 milioi euro ingurukoa da.

ingurukoa da".

GHK-k abenduaren 26an hartutako erabakiarekin "oniritzia eman zaio, bai egin den azterlanari, bai kontratazio espedienteari, eta aurreikusten da

obra publikoaren emakidaren formulaz esleitzea Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 2. fasea diseinatzeko, eraikitzeko, finantzatzeko, ustiatzeko eta mantentzeko kontratua".

6 milioi euro urtero, eraikitzaileentzat

37,4 milioi euroko inbertsioa egin beharko du proiektu hau gauzatu nahi duen enpresak. "Gunearen bigarren fasea martxan dagoenean, kontratistak 6 milioi jasoko ditu urtean (urteko gehieneko kuota), zenbateko hau egindako inbertsioarengatik eta instalazioaren kudeaketarengatik izango da 20 urte bitartean (eraikuntza aldia barne hartuta). Kortsortzioak abiaraztea onartzen duenean hasiko da kanona ordaintzen", adierazi dute GHK-tik.

Orain, lanok bideratzeko

esleipenean interesa duten enpresek eskaintzak aurkezteko 60 eguneko epea izango dute. Abian diren egungo lanekin batera gauzatu dira bigarren faseko obrak, datorren 2018ko apiriletik aurrera. Urtebetez luzatuko dira.

Foru Aldundiak aurreikusten duenez, udal eta foru hauteskundeak ospatuko liratekeen 2019ko maiatzean, "ustiatzen hasteko modua izango dela aurreikusten da". Azpiegitura hauekin, 2015-19 legegintzaldira amaierarako hondakinen kudeaketarekin dugun arazoa




Lanen esleipena egiteko epea zabalik dago oraindik.

konpondutzat ematen du Aldundiak eta "horrela, beteta geratuko da herritarrekin hartutako konpromisoa. Erabaki honek, hondakinen kudeaketaren arloan, Europako herrialde aurreratuenen abangoardian jartzen gaitu".

2018rako aurrekontua onartu dute

Asanblada berean 2018rako aurrekontua onartu zuen GHK-k. Honatx Kortsortzioak plazaratu dituen zenbakiak:

- Guztira: 40.559.161 euro.
- "Kortsortzioaren 2018ko aurrekontuetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo duen ekarpena jasota dago, baita ere, guztira 6 milioi eurokoa izango dena".
- 2018ko tarifetan igoerarik ez: 173 eurokoa errefus tona bakoitzeko eta 129 eurokoa bio-hondakin tona bakoitzeko.
- Bio-hondakinen gaikako bilteta sustatzeko, %15-%35 arteko tarifa hobari mailakatu ezarriko dute.
- Kudeaketa aurreikuspenak: 39.000 tona bio-hondakin (%8,33 gehiago), 160.000 tona erreus zabortegira eta Legazpiko ontzi sailkapeneko plantatik 4.500 tona birziklatzera.



Errausketa planta eta Usurbilgo herria, GHKren irudi batean.



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



Otar-Goxo
Elkagaitak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil



ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.eus

Harane, futbolari gaztetxoek topagune

Taldeakako argazkiak eta parte hartzaile guztien irudi orokorra aterata abiatu zuten abenduaren 23an Haranen, Usurbil F.T.-k antolatutako 4. Gabonetako Futbol Txapelketa. Etxekoekin batera, beste zazpi talde aritu ziren futbolaz gozatzen: Orioko F.T., Billabona K.E., Beti Ona, Allerru, Mutriku, Baztan eta Urnieta.



Etxekoekin batera beste zazpi talde aritu ziren jokatzeko.

Gabonetako Zozketa

Txapelketaren baitan, urte garai honetarako antolatu ohi duen errifan zozketa egin zuen Usurbil Futbol Taldeak. Euro bateko boletoak erostearen

truke, hiru sari eder irabazteko aukera zegoen. Honatx zenbaki sarituak:

■ Marije arropa dendan xahutzeko bono bat: 0147

zenbakia.

■ Gabonetako saskia: 2.289 zenbakia.

■ 2 laguntzako bazkaria Sairzar jatetxean: 4.467 zenbakia.

Irisasi BTT

'Hotzak Akabatzen'

Urtarrilaren 28an (9:00etan Mikel Laboa plazatik) ospatuko den ekimenerako izen ematea zabalik dago kirolprobak.com atarian. Federatuek 18 euro, federatu gabeek 20 euro. Egunean bertan ere egin ahal izango da izen-ematea. Bestetik, "parte hartu nahi duten 16 urtetik beherakoak jarri beharko dira harremanetan antolatzaileekin irisasibtt@gmail.com postaren bidez".

Lehenentzat, maillot bat opari

Maillot bat eskuratuko dute izena ematen duten lehen 500 partaideek.

Informazio gehiago:

andatzamendizale.info
irisasibtt@gmail.com

Mirotzen omenezko txapelketa, eskubaloi festa handia

Mirotz Ullateren omenezko infantilen arteko Gabonetako Eskubaloi Txapelketaren hamargarren edizioa ospatu zuten abenduaren 30ean egun osoz Oiardo Kiroldegian. Eskubaloi jokalariek neska-mutil mordoak bildu zuten, jada klasikoan bihurtu den topaketa honetan: Usurbil K.E., Tolosa CF, Indupime Basauri, Amenabar ZKE, Anaitasuna, Hernani ET, Aiala ZKE eta Anaitasuna klubeko kideak.

Bisitariak eta etxeokak pozik eta gustura aritu ziren, erakustaldi ederrak egin zituzten egun osoz eta merezitako sariarekin borobildu zuten jardunaldia. Antolatzaileak ere pozik: "Egun bikaina izan zen, infantil mailako txapelketa bikaina ospatu baitzen Oiardo Kiroldegian. Mila esker parte hartzaile guztiei!", zioten Usurbil K.E.-tik.



Usurbil K.E., Tolosa CF, Indupime Basauri, Amenabar ZKE, Anaitasuna, Hernani ET, Aiala ZKE eta Anaitasuna taldeak batu ziren txapelketan.

Sailkapenak

Mutilak

- 1-Amenabar ZKE
- 2-Usurbil K.E.
- 3-Anaitasuna
- 4-Indupime Basauri
- 5-Tolosa CF
- 6-Hernani ET

Atezain onena: Oier Iruretagoiena (Amenabar ZKE).

Jokalaririk onena: Sergio Martinez (Usurbil K.E.).

Nesak

- 1-Indupime Basauri.

2-Hernani ET

3-Aiala ZKE

4-Tolosa CF

5-Usurbil K.E.

6-Anaitasuna

■ Atezain onena: Uxue Cedrún (Indupime Basauri).

■ Jokalaririk onena: Janire Herretero (Indupime Basauri).

Zozketako sarituek 15 eguneko epea dute saria jasotzeko

Gabonetako Eskubaloi Txapelketaren amaieran egin zuen Usurbil Kirol Elkartek urte

garai honetan egin ohi duen zozketa berezia. Hiru sari zuzeneko jokoan. Sarituek sariak jasotzeko 15 eguneko epea dute:

■ 1. saria, mariskada eder bat: 1.764.

■ 2. saria, gabonetako otar bat: 1.829.

■ 3. saria, arkume bat: 1.006.

Bruñoko mariskada

Bruño etxeokoen mariskada eder bat ere zozketatu zuten. 1.949 izan zen zenbaki sari-tua.

Gipuzkoako birari ekiteko prest

Urtarrilaren 14an, Usurbil eta Zumaia arteko bidea osatuko dute oinez, Gipuzkoako Birako lehen etapa.

U rte berrirako irteeren egutegia diseinatu du jada Andatza M.K.T.-k. Besteak beste, Gipuzkoari bira eman asmo diote hurrengo hila labeteotan. Lehen etapa, igande honetarako, urtarrilaren 14rako iragarri dute. Zumaia oinez joateko gonbita luzatzen dute. Goizeko 08:00etarako finkatu dute Oiardo Kiroldegitik abiatzeko hitzordua. 29 kilometroko bidean zehar egingo da, norberak eraman beharko duen otordua. Itzulera trenez egingo da.

2018ko txangoen egutegia

- Urtarrilak 14: Gipuzkoako Birako lehen etapa, Usurbil-Zumaia.
- Otsailak 11: Gipuzkoako Birako bigarren etapa, Zumaia-Saturrarán.
- Martxoak 11: Gipuzkoako Birako hirugarren etapa, Saturrarán-Eibar.
- Apirilak 8: Gipuzkoako Birako laugarren etapa, Eibar-Udala (Arrasate).

- Maiatzak 6: Andatza Eguna.
- Maiatzak 12-13: Herri Urrats (egun bat edo biko irteera):
-Egun batekoa:
Ereñozu-Lesaka/Lesaka-Senpere.
-Bi egunekoa: Lizuniaga-Senpere.
- Ekainak 10: Gipuzkoako Birako bosgarren etapa, Kanpazar (Arrasate)-Arlaban (Leintz Gatzaga).
- Uztailak 7-8: Errioxara irteera, 2 egun.
-Uztailak 7: Valgañón-Posadas.
-Uztailak 8: Cubilla-Pancorbo.
- Irailak 9: Gipuzkoako Birako seigarren etapa, Arlaban-Aran-tzazu.
- Urriak 12-13-14: 3 eguneko irteera Pirinioetara:
-Urriak 12: Santa Ana-Foratón-Lizara.
-Urriak 13: Lizara-Bisaurin-Candanchu.
-Urriak 14: Candanchu-Aspe-Lizara.
- Azaroak 11: Otsondo-Bidarrai.
- Azaroak 22, 23, 25: Mendi Astea:
-Azaroak 22, 23: Proiekzioak

Sutegin.

-Azaroak 25: mendi irteera.

■ Abenduak 16: Hernio mendian ibilaldia, goiz pasa. Alkiza-Asteasu.

Oharrak:

-Behin behineko egitaraua da, txangoak aldatu edo bertan behera gera daitezke. Irteerak burutuko direla egiaztatu behar da antolatzaileekin.

-Andatza M.K.K.-k antolaturiko mendi irteeretan parte hartzeko, ezinbestekoa da mendiko federatua izatea.

Informazio gehiago:

andatza@hotmail.com
andatzamendizale.info

Pilota partidak Udaberriko Txapelketa

Urtarrilak 12 ostirala, Usurbil

■ 20:00etan, Eskuz binaka Jubenilak, 1.maila:
Pagazpe 1 / Oiarpe 2
"Oharra: Aurrez, arratsaldeko 19:00etan eta frontoian bertan, Klubeko argazkia aterako dugu".

Eskubaloitardak Urtarrilak 13, larunbata

- 09:30 Alebin neskek, Gipuzkoa:
-Udarregi 5A-Langile A
-Udarregi 5C-Udarregi 5B
- 10:45 Alebin neskek, Gipuzkoa:
-Udarregi 6B-Langile B
-Udarregi 6A-Andoain 6
- 12:00 Infantil mutilak, Gipuzkoa: Udarregi B-Egia 1
- 15:45 Kadete neskek, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Kukullaga
- 17:30 Kadete neskek, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Kukullaga
- 19:30 Senior mutilak, 1. Nazionala: Usurbil K.E.-Uharte

Futbola Haranen

Urtarrilak 13, larunbata

- 10:00 Alebin mutilak: Udarregi 5B-Landaberri A Udarregi 6A-Urnieta 6A
- 11:30 Kadete neskek: Usurbil F.T.-Zarautz K.E. "B"

Eskubaloikoak Galizian

Urtarrilaren 2tik 7ra Galizian, Vigon eta Pontevedran antolatu duten lurraldekako selekzioen arteko Espainiako Eskubaloitardak Txapelketa parte hartu dute Usurbil Kirol Elkarteko lau jokalariek, Euskadiko selekzioarekin. Emaizta ezinhobeak izan dituzte. Infantil nesketan Udane Makazaga laugarren postuan sailkatu da. Hirugarrenean, kadete mutiletan Eneko Furundarena. Eta lehen postuan amaitu dute, infantil mutiletan Ekaitz Ibargoienek eta jubenil mutiletan Julen Nazabalek. Zorionak!

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra



693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza



606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

RPS: 28/17

ETXEBIZITZA

Salgai

90 m2 pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m2- terraza, 8 m2 trastelekua eta bertan 33 m2-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Atikoa salgai garajea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 359.000 euro. 679002101.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosteko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Pisua alokatzen da Kaxkoan, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Altzariekiri. Hiru balkoi eta dena kanpoaldera. Igogailua ere badu. 670 070 562.

Pisua edo gela alokatzen da Santuenean. Oso ondo dago. 667 912 307 / 626 428 463 / 607 668 603

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Peugeot Partner bat salgai. Die-sela. 110 zaldi. 2009. urtekoa. 140.000 km. 665 71 53 21

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosteko nuke Usurbil edo inguruan.

630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeo karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindur. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m² karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zubietan, goizetan etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Lernaldi erdia. Tel. 695 783 202

Zerbitzari bat behar da, kartarekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona

helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziakin. Tel. 632 576 258

Pertsona helduak zaintzen lan egingo lukeen mutil bat naiz. Larunbat eta igandetan, esperientzia daukat. Tel. 632 793 747

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun hezirik esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo aste-burutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo aste-burutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.



Arantza eta Luis, zoriontsuak izan zaitzetzela opa dizuegu! Ederki pasa genuen! Besarkada eta muxu pila kuadrilaren partez.



Zorionak Josu eta aitona! Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Ibai! Gure etxeko erregeak, 5 urte bete zituen urtarrilaren 8an. Muxu pottolo bat eta ondo pasa! Etxeko guztien partetik.



Zorionak Xune! Urtarrilaren 8an 3 urte bete zenituelako. Muxu pila pila patata eta txorizo tortila familiako guztien partez, eta bereziki Haizearen partez!

Heriotzak

Anastasia Martínez Herrero
94 urterekin hil zen abenduaren 19an



Claudia Murua Atxega
91 urterekin hil zen abenduaren 28an



Francisco Infante Roldán
84 urterekin hil zen urtarrilaren 3an



Isabel Calvo Santamartina
63 urterekin hil zen urtarrilaren 2an



Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauzez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesez eta frantsesez goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauzez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan la-

nean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo

sukaldari bezala (euskal sukaldarean ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldetan lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihena Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

BESTELAKOAK

Klase partikularrik eskaintzen dira, akademikoak eta gitarrakoak. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 634 412 687 (Josu).

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean Donostiara doan Usurbilgo autobusbuz geltokian poltsa gorri batean galtza bakero batzuk utzi nituen. Norbaitek ikusi edo hartu badu deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an katurua txiki bat (ninf) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatu gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Goardiako farmaziak

Osteguna 11 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 12 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 14 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 15 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 16 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 17 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Urtarrilak 11 - Urtarrilak 21

Osteguna 18 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 19 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 21 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urtarrila

12 ostirala

■ **Hitzarturen aurkezpena.** 19:00etan Sutegi-ko auditorioan.

13 larunbata

■ **Autobus zerbitzua Bilboko manifestazio-
ra.** 17:30ean Bilboko Kasillan. Autobus zer-
bitzua Usurbildik. Izen ematea aurrez, ohiko
tokietan.

14 igandea

■ **Irteera: Usurbil-Zumaia.** Abiatzeko hitzor-
dua: 08:00, Oiardo Kiroldegitik.

Aginagako psikomotrizitate ikastaroa aste honetan abiatuko da

San Praixku Guraso Elkartek an-
tolatuta, urtarrilaren 11tik mar-
txoaren 22ra luzatuko da, Munia
Larburu psikomotrizistak bideratuko
duen ikastaroa. Hiruhileko osoko kuota
60 eurokoa izango da bazkide ez dire-
nentzat, 45 eurokoa bazkide direnentzat.
Bi talde aurreikusi dira:

■ Ostegunetan, 17:00-18:00 artean HH
2-3 mailakoak.

■ Ostegunetan, 18:00-19:00 artean, HH
4-5 mailakoak.

Argibide gehiago: 636 531 650 (Ana).



Martxoaren 22ra arte luzatuko da ikastaroa.

Urtarrilean arratsalde egongo da KzGunea zabalik

Urtarrilean arratsalde egongo da za-
balik Usurbilgo KzGunea. Arratsaldeko
16:00etatik 20:00etara.

■ Urtarrilak 17-26, 16:00-18:00.

Ikastaroa: "Argazki ukitua GIMP
erabiliz".

■ Urtarrilak 29-30, 16:00-18:00.

Ikastaroa: "Argazkiak. Zure argazki
guztiak antolatu edozein gailutik".

■ Urtarrilak 29-30, 18:00-20:00.

Ikastaroa: "Instagram".

■ Urtarrilak 31, 16:00-18:00.

Ikastaroa: "Ordainketak Interneten
segurtasunez".

Informazio gehiago: Kale Nagusia, 37.

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Datozenak

Urtarrilaren 26an, "Girlhood" filma Sutegin

Hilean behin, Udarregiko DBH4-ko
gazteek film bat proiektatzen dute.
Urtarrilaren 26an, 'Girlhood' filma
eskainiko dute.

■ Urtarrilak 26 ostirala, 19:00etan.

■ Sutegiko auditorioan.

■ Sarrerak: egunean bertan, 2 euro.

■ Jatorrizko hizkuntza: frantsesa.

■ Azpituak: Euskaraz.

■ Iraupena: 112 min.

■ Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Urtarrilaren 27an, kantu-jira

Urtarrileko kantu-jira eguerdi partean
egingo dute.

■ Orduetgia: 12:00-14:00.

■ Tokia: Mikel Laboa plazatik.

■ Antolatzailea: Kantu Taldea.

Irisasi BTT 2018 "Hotzak akabatzen!" lasterketa

■ Izen ematea: urtarrilaren 1etik
26ra, kirolprobak.com atarian.

■ Federatu gabeek 18 euro; federa-
tuek 20 euro.

■ Informazio gehiago:
andatzamendizale.info

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Inaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK


info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Betiko Sagardoa



Sagar gazi eta gozoko
aurreneko zuku tantak
jaitsi dira.

TXOTX 2018 Zabalik!

SAIZAR
Sagardotegia

**ABANGOARDIA
& TRADIZIOA**

Kale-zahar, 39 · 20170 USURBIL (Gipuzkoa) ·  943 373 995 · sidreria@sidrassaizar.com

www.sidrassaizar.com



URDAIRA

Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 6ra
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baseria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 litre baino gehiago Usurbildarrel
sagardo hobereenak eskeintzen.

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubieta

ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



Kalezar 39, USURBIL sidrerio@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

SAGARDOTEGIA

aginaga

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA



943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea